

FUNTZIONAMENDU ARAUAK Ospitalizazioko Unitatea –REUMATOLOGIA

Dei egiteko beharrea bazaude, ERABILI GELAKO TXIRRINA

MEDIKUAREN BISITA / FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA

- Eskatu laguntza behar duzun guztietan.
- Egunero pijama edo ohe-atorra jasoko duzu. Norberaren garbitasunerako, bainugela bat dago logelan, dutxa eta guzti.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Lagundu ospitalean ISILTASUNARI eusten.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurduinak edo lurgabeak.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalak bere gain hartuko.

MEDIKUAREN IKUSTALDIA ETA FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA



- Lanegunetan 8:00etatik 15:00era, eta larunbatak beharren arabera.
- GOIZEAN zehar gehienez lagun bat egongo da gelan paziente bakoitzarekin.
- Pazientearen eboluzioari buruzko informazioa medikuaren bisita ostean emango da.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingresaturik dagoen inorri buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.

OTORDUAK



08:45 - 09:00 Gosaria
13:00..- 13:30 Bazkaria
17:00 - 17:15 Askaria
20:15 - 20:30 Afaria

BISITAK

- 15:00etatik 22:00etara- Astegunetan
- 08:00etatik 22:00etara – Larunbat eta igandeetan
- **Pazienteko 2 pertsona, gehienez.**
Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke.

BESTE GAUZA JAKINGARRI BATZUK

ERREFERENTZIAZKO ERIZAINA EDO ERIZAINZAKO LAGUNTZAILEA

Ospitaleratuta zauden bitartean eta laneko hiru txandetan, ERREFERENTZIAZKO Erizain bat eta Erizaintzako Laguntzaile bat izango dituzu zure zerbitzura, eta zure zainketez arduratuko dira. Txanda bakoitzean zu bisitatzeraz pasatuko dira zure beharrei erantzuteko eta zure osasun-arazoetan laguntzeko.



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



LAGUNTZA ETA HEZKUNTZA SANITARIOA

Memento jakin batean beharrezkoa izango da familiarrek baten presentzia alta ondoko zainketak nola egin ikasten laguntzeko.



Ingresuko egiaztagiria (enpresarako, oheburuko medikuarentzat edo familiarrekentzat), behe solairuan, sarreran, dagoen Harrerako Unitatean jaso daiteke.



SANTIAGO OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007600

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000887. Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.



Telebista-zerbitzua ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora. Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke-e.



KAFETEGIA Orduategia: 8:00etatik 22:00etara.

Ate nagusiaren aurrean dago.

Itxarongelan-5. Solairuan, kafeak eta freskagarriak ematen dituen makina batzuk daude.



OSPITALEKO ALTA: Ahal dela, bezperan emango zaizu horren berri. Komenigarria da alta egunean senideren batekin izatea.

Altaren egunean komenigarria da gela uztea txostena jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.

ERLIJIO-ZERBITZUA



- Beheko solairuan -B Pabiloian KAPERA bat dago
- Erljio-laguntzako orduategi berria 9etatik 17etara izango da egunero.
- Beste erlijio batzuetako pazienteek eta senideek laguntza eskatu diezaiokete euren arimako maisuari.

PAZIENTEAK ETA ERABILTZAILEAK ATENDITZEKO ZERBITZUA (PEAZ) beheko solairuan dago.
Orduategia: 9:00etatik 14:30era (astelehenetik ostegunera). **Gizarte-langilea:** 3. C solairuan dago.